## LEZIÑANA

**3981**

**Jendaurrean jartzea etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren zerga errolda, eta 2013ko lehen seihilekoko ordainagiriak kobratzeko jartzea, borondatezko epean.**

Leziñanan egin da etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren zerga errolda (2013ko lehen seihilekoa), eta 2013ko uztailaren 15ean onartu da; jendaurrean egongo da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesdunek Arabako Leziñanako Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Zerga errolda jendaurrean jarrita, osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako Zergei buruzkoak, 98. artikuluaren 3. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz. Dena den, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dezakete, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak administrazio batzarraren erregidore lehendakariari aurkeztuko zaizkio, aurretik adierazi diren epeen barruan.

Ordaintzeko borondatezko epea izango da 2013ko irailaren 2tik 30era artekoa, egun biak barne.

Zergaren ordainketa helbideratuta dutenei 2013ko irailaren 12an kobratuko zaie.

Finantza erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek Kutxabanken bulegoetan ordainduko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuz, edo, bestela, Vitalneten bidez. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, beste ale bat jaulkiko du administrazio batzarrak.

Finantza erakundeetan helbideratutako ordainketak:

Leziñanako Administrazio Batzarrak zuzenean kudeatuko du kargua, ordainketa helbideratu den banketxeko kontuan.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekarguarekin, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako Zergei buruzkoak, 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Leziñana, 2013ko uztailaren 23a.– Erregidore lehendakaria, JESÚS MARÍA DÍAZ DE LEZANA FERNÁNDEZ DE GAMARRA.

## LECIÑANA DEL CAMINO

**3981**

**Exposición al público del Padrón contributivo de la tasa por suministro domiciliario de agua potable y saneamiento y puesta al cobro en periodo voluntario de los recibos correspondientes al primer semestre de 2013.**

Habiéndose confeccionado el Padrón contributivo referente a la Tasa por suministro domiciliario de agua potable y saneamiento de Leciñana del Camino correspondiente al primer semestre de 2013, siendo el mismo aprobado con fecha 15 de julio de 2013, el padrón se encuentra expuesto al público durante el plazo de quince días hábiles contados a partir del día siguiente a la publicación del presente anuncio de exposición en el BOTHA, a fin de que los interesados puedan examinarlo y formular las reclamaciones que consideren oportunas.

Los interesados podrán examinar el expediente en la Sala Concejo de la Junta Administrativa de Leciñana del Camino (Álava).

La exposición al público de los padrones contributivos supone la notificación colectiva de las liquidaciones que lo integran, de conformidad con lo dispuesto en el apartado 3 del artículo 98 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava, sin perjuicio de la posibilidad de los interesados de interponer también contra las cuotas asignadas recurso de reposición en el plazo de un mes, a contar desde el día siguiente al de la publicación en el BOTHA del presente anuncio. Los recursos y reclamaciones se interpondrán ante el Regidor-Presidente de la Junta Administrativa, en los plazos señalados anteriormente.

El período cobratorio en vía voluntaria es del 2 al 30 de septiembre de 2013, ambos inclusive.

El cobro de los recibos domiciliados se efectuará el día 12 de septiembre de 2013.

Pagos no domiciliados en entidades financieras:

La recaudación se realizará, para aquellos contribuyentes que no tengan domiciliado el pago de la tasa, a través de las sucursales de Kutxabank, en horario de 8:30 a 10:30 h, mediante la presentación de la nota de aviso de cobro que recibirá en su domicilio, o bien por Vitalnet. En caso de extravío o no recepción del recibo, se emitirá un ejemplar duplicado en la Junta Administrativa.

Pagos domiciliados en entidades financieras:

La Junta Administrativa de Leciñana del Camino gestionará directamente el cargo en las cuentas de las entidades financieras en las que se haya domiciliado el pago.

Transcurrido el periodo voluntario de pago sin haberse efectuado el ingreso se procederá a su cobro por vía de apremio con aplicación del recargo que corresponda, conforme dispone el artículo 28 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava.

Leciñana del Camino, 23 de julio de 2013.– El regidor-presidente, JESÚS MARÍA DÍAZ DE LEZANA FERNÁNDEZ DE GAMARRA.

## OLABARRI

**3982**

**Dirulaguntza eskatzea**

Kontzeju honek, 2013ko uztailaren 20ko bilkuran, erabaki du Arabako Foru Aldundiari 80.000,00 euroko dirulaguntza eskatzea, finantzaketako foru lerroaren kontura, herriguneko azpiegiturak eraberritzeko.

Eta hori jendaurrean jartzen da, interesdunek espedientea aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak idatziz aurkeztu ahal izan ditzaten, hamabost eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Olabarri, 2013ko uztailaren 22a.– Erregidore lehendakaria, FÉLIX LÓPEZ DE TORRE.

## OLLÁVARRE

**3982**

**Solicitud de ayuda económica**

Este Concejo, en sesión celebrada el día 20 de julio de 2013, ha acordado solicitar de la Diputación Foral de Álava la concesión de una ayuda económica con cargo a la Linea Foral de Financiación por importe de 80.000,00 euros y con destino a la reforma de infraestructuras del núcleo urbano.

Lo que se expone al público a efectos de que los interesados puedan examinar el expediente y presentar por escrito las reclamaciones que estimen oportunas, durante el plazo de quince días, a contar desde el siguiente al de la publicación de este anuncio en el BOTHA.

En Ollávarre a 22 de julio de 2013.– El regidor-presidente, FÉLIX LÓPEZ DE TORRE.